DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea
Comisión de Servicios a las Personas
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

12447n II

## 28. AKTA

## Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2022-01-17

**Ordua:** 12:32 h

**Tokia:** Udalbatza aretoa

**Batzordeburua:** Duñike Agirrezabalaga Ugarte.

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Aitziber San Roman Abete

Jon Insausti Maisterrena *(13:26an irten da eta 13:35ean sartu da berriro; 14:05ean atera da)*

Martin Ibabe Eceiza

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga *(12:42an irten da eta 12:44an sartu da berriro; 13:18an irten eta 13:27an sartu da berriro)*

Olaia Duarte López *(13:03an irten da eta 13:07an sartu da berriro)*

Miguel Ángel Díez Bustos

Jorge Mota Iglesias *(12:39an irten da eta 12:42an bertaratu da; 13:26an irten da eta 13:28an sartu da berriro)*

Aitzole Araneta Zinkunegi *(13:32an irten da)*

**Beste zinegotziak:**

Ane Oyarbide Ochoa

Haizea Garay Gallastegui *(12:36an bertaratu da eta 12:48an bileratik irten da; 13:32an sartu da berriro eta 13:38an irten da; 14:05ean sartu da berriro)*

## ACTA n.º 28

## Comisión de Servicios a las Personas

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 17-01-2022

**Hora:** 12:32 h

**Lugar:** Salón de Plenos

**Preside:** Duñike Agirrezabalaga Ugarte.

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

Aitziber San Román Abete

Jon Insausti Maisterrena *(se retira a las 13:26 h y se incorpora a las 13:35 h; se retira a las 14:05 h)*

Martin Ibabe Eceiza

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga *(se retira a las 12:42 h y se reincorpora a las 12:44 h; se retira a las 13:18 h y se incorpora a las 13:27 h)*

Olaia Duarte López *(se retira a las 13:03 h y se incorpora a las 13:07 h)*

Miguel Ángel Díez Bustos

Jorge Mota Iglesias *(se retira a las 12:39 h y se incorpora a las 12:42 h; se retira a las 13:26 h y se reincorpora a las 13:28 h)*

Aitzole Araneta Zinkunegi *(se retira a las 13:32 h y se reincorpora a las 13:44 h )*

**Otros/as concejales/as:**

Ane Oyarbide Ochoa

Haizea Garay Gallastegui *(se incorpora a las 12:36 h y se retira a las 12:48 h; se incorpora a las 13:32 h y se retira a las 13:38 h; se incorpora a las 14:05 h)*

Marisol Garmendia Beloqui *(12:42an bertaratu da eta 13:12an bileratik irten da; 13:18an sartu eta 13:46an atera da berriro)*

Marisol Garmendia Beloqui *(se incorpora a las 12:42 h y se retira a las 13:12 h; se reincorpora a las 13:18 h y se retira a las 13:46 h)*

Marta Huarte Paño *(12:48an bertaratu da eta 13:08an irten da)*

Marta Huarte Paño *(se incorpora a las 12:48 h y se retira a las 13:08 h)*

Zigor Etxeburua Urbizu *(12:55ean bertaratu da eta 12:57an bileratik irten da; 13:00etan sartu da berriro)*

Zigor Etxeburua Urbizu *(se incorpora a las 12:55 h y se retira a las 12:57 h; se reincorpora a la 13:00 h)*

Reyes Carrere Zabala *(13:19an bertaratu eta 14:05ean irten da)*

Reyes Carrere Zabala *(se incorpora a las 13:19 h y se retira a las 14:05 h)*

**Idazkaria:** Tamara Alvarez Fernandez, idazkari nagusiak eskuordeturik.

**Secretaria:** Tamara Álvarez Fernández, por delegación del Secretario General.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin dio:

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

Aurretik, ordea, lehendakariak adierazi du PP taldeak premiazko proposamen bat aurkeztu duela, Pio Barojari hil osteko hiriko urrezko domina emateari buruzkoa, gai zerrendatik kanpo aztertzeko. Eta, gai zerrendan sartu gabe dagoenez, aztertuko bada, urgentziaz aztertu beharrekotzat jo behar litzatekeela.

Con carácter previo, la presidenta señala que el grupo municipal PP ha presentado una proposición urgente, para conceder a Pío Baroja la medalla de oro de la ciudad a título póstumo. Y que, al no figurar en el orden del día, requiere, para su tratamiento, que se declare previamente la urgencia.

Jorge Mota jaunak hitz egin du bere taldeak aurkeztutako proposamena aztertzearen premiarako arrazoiak azaltzeko.

El Sr. Mota Iglesias interviene para motivar la urgencia del tratamiento de la proposición presentada por su grupo.

Aitzole Araneta andreak, Jon Markel Ormazabal jaunak eta Jon Insausti jaunak hitz egin dute puntu honetan.

Intervienen en este punto la Sra. Araneta Zinkunegi, el Sr. Ormazabal Gaztañaga y el Sr. Insausti Maisterrena.

Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Todo ello en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Bozketa egin eta baztertu da premiaz aztertu beharra, honako botoak eman direla:

Sometida a votación, se rechaza la urgencia del asunto, con los siguientes votos:

- Aldeko botoak: 4 (2, EH BILDU; 1, PP; 1, ELKARREKIN DONOSTIA).
- Kontrato botoak: 5 (3, EAJ-PNV; 2, PSE-EE).
- Abstentzioak: 0.

- Votos a favor: 4 (2, EH BILDU; 1, PP; 1, ELKARREKIN DONOSTIA).
- Votos en contra: 5 (3, EAJ-PNV; 2, PSE-EE).
- Abstenciones: 0.

**1.- 2021eko abenduaren 9an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 9 de diciembre de 2021.**

Bozketa egin eta aho batez onartu da 27. akta,

Se aprueba por unanimidad el acta número 27,

2021eko abenduaren 9an egindako bilerari dagokiona.

correspondiente a la sesión celebrada el día 9 de de diciembre de 2021.

**2.- 2022ko Urrezko Danborra ematearen berri ematea.**

Lehendakariak, Agirrezabalaga Ugarte andreak, hartu du hitza. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Batzordea jakitun geratu da.

**2.- Dar cuenta de la concesión del Tambor de Oro 2022.**

Interviene la Presidenta, la Sra. Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

La comisión queda enterada.

**3.- 2022ko Herritarren Merezimenduen Dominak ematearen berri ematea.**

Lehendakariak, Agirrezabalaga Ugarte andreak, hartu du hitza. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Batzordea jakitun geratu da.

*(12:36an Haizea Garay bilerara sartu da)*

**3.- Dar cuenta de la concesión de las Medallas al Mérito Ciudadano 2022.**

Interviene la Presidenta, la Sra. Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

La comisión queda enterada.

*(A las 12:36 h se incorpora la Sra. Garay Gallastegui)*

**4.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, berrikusi beharreko sari eta ohoreei buruzkoa.**

Haizea Garay andreak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Elkarrekin Donostia udal talde politikoko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi Ane Oyarbideri, emandako eta berrikusi beharreko sariei eta ohoreei buruz, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Oroimen Historikoari buruzko 52/2007 Legearen 15. artikuluak zehazten duenez, administrazio publikoek, beren eskumenak baliatuz, neurri egokiak hartu behar dituzte altxamendu militarra, Gerra Zibila eta diktaduraren errepresioa modu pertsonal edo kolektiboan goraipatzen dituzten armarriak, intsigniak, plakak eta oroitzapenezko bestelako objektu eta aipamenak kentzeko.

Joan den abenduan, urrezko domina kendu zitzaion Federico Silva Muñoz ministro frankistari.

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a las distinciones y honores concedidas a revisar.**

La Sra. Garay Gallastegui da por leída la siguiente interpelación:

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la concejala de Igualdad, Solidaridad, Derechos Civiles, Ane Oyarbide, para su tratamiento en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS, relativa a las distinciones y honores concedidas a revisar.

JUSTIFICACIÓN

El artículo 15 de la ley 52/2007 de la Ley de Memoria Histórica determina que “las Administraciones públicas, en el ejercicio de sus competencias, tomarán las medidas oportunas para la retirada de escudos, insignias, placas y otros objetos o menciones conmemorativas de exaltación, personal o colectiva, de la sublevación militar, de la Guerra Civil y de la represión de la Dictadura”.

El pasado mes de diciembre se procedió a la retirada de la medalla de oro al ministro franquista

Hala ere, ez da hiriak frankismoaren garaian diktaduraren erantzuleei emandako sari bakarra. Izan ere, hainbat dira 1936ko estatu-kolpean, Gerra Zibilean eta ondorengo diktaduran erantzukizunen bat izan zuten pertsonei emandako sariak.

Federico Silva Muñoz. Sin embargo, no es la única de las distinciones que tiene concedidas la ciudad en periodo franquista a responsables de la dictadura. Son varias las que han sido otorgadas a diferentes personas que han tenido responsabilidades en el golpe de Estado de 1936, la Guerra Civil así como la posterior dictadura.

2017ko irailean, osoko bilkuran eskatu zen udal-gobernuak, Oroimen Historikoaren Kontseiluarekin lankidetzan, zerrenda bat egin zezala hiriak frankismo garaian emandako sariak kentzeko. Proposamena baztertu egin zuen osoko bilkurak. Hala ere, uste dugu funtsezko neurria dela hori egoera honi aurre egiteko eta oroimenaren legea betetzeko.

En septiembre de 2017 fue solicitado en pleno que el gobierno municipal la elaboración, en colaboración con el Consejo de la Memoria Histórica, de una propuesta de galardones a retirar entre las personas que durante el franquismo recibieron distinciones por parte de la ciudad. La propuesta fue rechazada en pleno. Sin embargo, consideramos la medida esencial para poder afrontar esta situación y dar cumplimiento a la ley de memoria.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal gobernuak zergatik ez ditu aztertzen frankismoaren garaian hirian emandako sari, ohore eta golardo guztiak, Oroimen Historikoaren Legea betetzen ez dutenak kentzeko?

2. Ba al du sariak eta ohoreak kentzeko beste proposamenik egiteko asmorik? Erantzuna baiezkoa bada, zein eta noiz kentzea planteatzen dute?

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7a

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldearen zinegotzia"

Por este motivo, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo el gobierno municipal no analiza todas las distinciones, honores y galardones concedidos durante el franquismo en la ciudad al objeto de retirar aquéllas que incumplan la ley de memoria histórica?

2. ¿Tiene intención de plantear nuevas propuestas para retirar distinciones y honores? En caso afirmativo, cuáles y cuándo plantean retirarlas.

Donostia, 7 de enero de 2022

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

Ane Oyarbide andreak eta Haizea Garay andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Oyarbide Ochoa y Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:39an Jorge Mota jauna bileratik joan da)*

*(A las 12:39 h se retira el Sr. Mota Iglesias)*

**5.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, 2021ean Donostian izandako giza eskubideen urraketei buruzko ikerketan egindako aurrerapenei buruzkoa.**

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a los avances en la investigación sobre vulneraciones de Derechos Humanos en Donostia durante el 2021.**

Haizea Garay andreak irakurritzat eman du interpelazio hau:

La Sra. Garay Gallastegui da por leída la siguiente interpelación:

"Elkarrekin Donostia taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Berdintasuneko,

"Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a

Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkari Ane Oyarbideri, 2021ean Donostian izandako giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa historikoan egindako aurrerapenak direla eta, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN azter dadin.

la concejala de Igualdad, Solidaridad, Derechos Civiles, Ane Oyarbide, para su tratamiento en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS, relativa a los avances realizados en el año 2021 en la investigación histórica sobre vulneraciones de derechos humanos de Donostia.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Joan den azaroko batzordeetan, hiriko oroimen kolektiboari buruzko dokumentazioaren gaineko interpelazio bat egin genuen, eta azpimarratu garrantzitsua dela oroimen historikoaren arloan egiten diren ikerketa edo proiektuetan jasotako testigantzak udal agiritegi publikoan behar bezala kudeatzea, batez ere udalaren ekimenez egin diren eta dirulaguntza jaso duten edo udal kutxetatik laguntza ekonomikoa jaso duten proiektu, azterlan eta ikerketetakoak.

El pasado mes de noviembre interpelamos en comisiones acerca de la documentación relativa a la memoria colectiva de la ciudad y subrayamos la importancia de que los testimonios recogidos en distintas investigaciones o proyectos que se realicen en materia de memoria histórica sean gestionados de forma correcta en el archivo público municipal, sobre todo de aquellos proyectos, estudios e investigaciones que se realizan por iniciativa del ayuntamiento y que han sido subvencionados o que han contado con ayuda económica procedente de las arcas municipales.

Interpelazio horretan, gogoratu genuen Udalak 2017. urtean dirulaguntza bat eman ziola Aranzadi Zientzia Elkarteari, Donostiako giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa-proiektua (1936-1945) tokiko informazio-iturrien bitartez egiteko, eta, horren ondorioz, urte hartako urrian, Oroimen Historikoaren Bulegoa sortu zela Aranzadiren beraren egoitzan, 1936-1945. urteetan Donostian errepresaliatutako pertsonen testigantzak biltzeko. Era berean, gogorarazi genuen askotan eskatu dela azterlan horren aldia zabaltzea, justiziaren arloan aurrera egiteko.

En dicha interpelación recordamos cómo el Ayuntamiento concedió el año 2017 una subvención a la Sociedad de Ciencias Aranzadi para llevar a cabo el proyecto “Investigación sobre vulneraciones de Derechos Humanos en Donostia (1936-1945) a través de fuentes de información locales”, el cual dio origen a la creación en octubre de aquel mismo año de la Oficina de Memoria Histórica en la sede de la misma Aranzadi para recopilar testimonios de personas represaliadas durante los años 1936-1945 en Donostia. E igualmente recordamos que han sido numerosas las ocasiones en las que se ha solicitado ampliar dicho estudio en el tiempo y para avanzar así en el ámbito de la justicia.

Bestalde, abenduaren 15ean, idatzizko erantzun bat jaso genuen 2022ko ekitaldian oroimen historikora bideratutako aurrekontu-partidei buruz. Erantzun hartan, euro kopuru zehatz bat aipatzen zen, eta zenbateko hori Aranzadiren proiektua diruz laguntzeko erabiliko zela esaten. Aranzadiren proiektu horri buruz honako hau jartzen zuen:

Por otra parte, en las respuestas por escrito que nos fueron remitidas el 15 de diciembre sobre las partidas presupuestarias para el ejercicio 2022 destinadas a memoria histórica, se señalaba en concreto una cantidad de euros que, palabras textuales, “se van a destinar a seguir subvencionando el proyecto de Aranzadi”. Y sobre este proyecto de Aranzadi se señalaba lo siguiente:

2021ean jadanik zabaldu zen aldia, eta 1946tik 1959ra bitarteko aldiari buruzko ikerketa historikoa zabaldu zen, honako hauen bidez:

“Ya en 2021 se amplió el periodo y se amplió la investigación histórica relativa al periodo comprendido entre 1946 y 1959, mediante:

• Aldi horretan izandako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko datuak jasotzen zituzten argitalpenak, ikus-entzunezko proiektuak eta bigarren mailako beste iturri batzuk kontsultatzea eta hustea.

• Consulta y vaciado de publicaciones, proyectos audiovisuales y otras fuentes secundarias que pudieran contener datos a víctimas de violaciones de derechos humanos durante este período.

• Ikerketa historikoa tokiko artxiboetan egitea, bai eta Gipuzkoako lurralde historikoari, Euskal

• Investigación histórica en diferentes archivos, tanto del ámbito local como los adscritos al

Autonomia Erkidegoari eta Espainia osoari atxikitakoetan egitea ere. Zeregin horretan, garrantzi berezia du Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan eta estatuko artxibo militarretan egon daitekeen dokumentazioak.

territorio histórico de Gipuzkoa, a la Comunidad Autónoma Vasca y al conjunto de España. En esta labor adquiere especial relevancia la documentación que pueda hallarse en el Archivo Histórico Provincial de Gipuzkoa, así como en archivos militares de ámbito estatal.”

Gure udal taldeak behin baino gehiagotan eskatu izan du 2017an egin zen azterketan aurrera egiteko, eta aurten ere halaxe eskatu du. Bada, dirudienez, 2021ean, ikerketa historikoko jarduera bat egin da ildo horretan, baina udal gobernuak ez du horri buruzko informaziorik eman abenduaren erdialdera arte. Hori dela eta, hau da gure

Dado que, desde nuestro grupo municipal se ha venido reclamando en múltiples ocasiones, también este año, por avanzar en el estudio que se llevó en el año 2017, y que durante el 2021 al parecer ha habido una actividad de investigación histórica en este sentido de la que el gobierno municipal no había dado ningún tipo de información hasta mediados de diciembre, presentamos la siguiente:

INTERPELAZIOA

1. Aranzadi Zientzia Elkartea jadanik 2021ean hasia bazen Donostiako giza eskubideen urraketei buruzko ikerketa 1945. urtetik aurrera zabaltzen, 2021eko ekitaldiko aurrekontuetako partida batek finantzatuta, udal gobernuak zergatik ez die udal taldeei aldez aurretik jakinarazi 1936-1945 aldia zabaltzeari ekin ziotela?

2. Eman al die informazio hori Oroimen Historikoaren Kontseilu Sektorialean parte hartzen duten eragileei?

3. Zer emaitza zehatz lortu dira elkarteak 2021ean egindako ikerketa-jardueratik? Udal gobernuak ba al ditu 2021ean egindako lanari dagozkion txostenak eta ikerketa horretan lortutako datuak?

4. Udal gobernuak zergatik ez du horrelako ikerketa eta azterlanak egiteko lehiaketa publiko bat egiten, arlo horretan aditu diren beste elkarte, erakunde eta profesional batzuek ere parte hartu ahal izan dezaten eta merezimenduak aurkeztu ahal izan ditzaten? Hurrengo urteetarako baloratuko al du lehiaketa publikoaren prozedura egitea?

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7a

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia”

INTERPELACIÓN

1. Si la Sociedad de Ciencias Aranzadi había comenzado ya en el 2021 con la ampliación de la investigación sobre vulneraciones de Derechos Humanos en Donostia más allá del año 1945, financiada por una partida de los presupuestos correspondientes al ejercicio del 2021, ¿por qué el gobierno municipal no ha informado con anterioridad a los grupos municipales de que ya se había iniciado esa ampliación del periodo 1936-1945?

2. ¿Ha compartido esta información con los agentes que participan en el Consejo Sectorial de Memoria Histórica?

3. ¿Cuáles son los resultados concretos obtenidos de la actividad investigadora realizada por la Sociedad en el 2021? ¿Tiene el gobierno municipal los informes correspondientes al trabajo realizado en el 2021 y los datos obtenidos en dicha investigación?

4. ¿Por qué el gobierno municipal no convoca concursos públicos para la realización de este tipo de investigaciones y estudios, de forma que puedan participar y presentar sus méritos otras asociaciones, entidades, e incluso profesionales que son también competentes en la materia? ¿Va a valorar el procedimiento de concurso público para los siguientes años?

Donostia, 7 de enero de 2022

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia”

Ane Oyarbide andreak eta Haizea Garay andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Oyarbide Ochoa y Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:42an Marisol Garmendia andrea eta Jorge Mota jauna bilerara sartu dira. 12:44an Jon Markel Ormazabal jauna bileratik joan da eta 12:44an sartu da berriro)*

*(A las 12:42 h se incorporan la Sra. Garmendia Beloqui y el Sr. Mota Iglesia; se retira el Sr. Ormazabal Gaztañaga y vuelve a entrar a las 12:44 h)*

**6.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, uharteko argiei buruzkoa.**

**6.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a las luces de la Isla.**

Haizea Garay andreak irakurritzat eman du interpelazio hau:

La Sra. Garay Gallastegui da por leída la siguiente interpelación:

"Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Ekonomia Sustapeneko zinegotzi ordezkari Marisol Garmendiari, uhartetik proiektatutako argi- eta soinu-ikuskizunari buruz, LURRALDE GARAPEN ETA PLANIFIKAZIO BATZORDEAN azter dadin.

"Haizea Garay Gallastegui, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación a la concejala delegada de Impulso Económico, Dª Marisol Garmendia, para su tratamiento en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS, relativa al espectáculo de luz y sonido desde la Isla.

JUSTIFIKAZIOA

Azken asteotan, Udal Gobernuak argi- eta soinu-ikuskizun gisa iragarritako gauza bat ikusi ahal izan dugu badian. Udalaren webgunearen arabera, "Gabonak direla eta, eta Ekonomia Bultzatzeko zinegotzigoaren, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Sailaren eta Donostia Sustapenaren eskutik, Donostiak Gabon honetan Kontxako badia eszenatoki gisa hartuta, argi, laser eta musika ikuskizun ikusgarria izan du".

Ikuskizunean, udal webguneak jakinarazi zuenez, lau musika-pieza zeuden, horietako bat okasiorako berariaz sortua, eta, pieza bakoitzarekin batera, argi-ikuskizun bat. Abenduaren 31ra arte egon zen martxan, egunean lau aldiz, 18: 30etik 20: 00etara.

Marisol Garmendia Ekonomia Bultzatzeko zinegotziak adierazi duenez, "Gabonetako ilusioak hiria zeharkatzen jarraitzea eta orain hori hiriko lekurik enblematikoenera, Kontxako badiara, hedatzea nahi dugu. Hondartza hiriarekin eta bertako jendearekin lotzen duen ikuskizuna da. Izan ere, proiektatuko diren argi-izpiek badia menderatzen duen maskor baten forma hartzen dute".

Kontuan hartuta non instalatu den eta argi-izpiek badia osoan zer eragin izan duten, datu gehiago izan nahiko genituzke halako argi biziak inguruko hegaztietan izan duen eraginari buruz, bai eta inguruko auzokideengan izan duen eraginari buruz ere.

JUSTIFICACIÓN

Las últimas semanas se ha podido observar a lo largo de la bahía algo que anunciaron desde el gobierno municipal como un espectáculo de luz y sonido. Según la web municipal, "con motivo de la Navidad y de la mano del Ayuntamiento de San Sebastián (Concejalía de Impulso Económico, Fomento de San Sebastián) y el Gobierno Vasco (Departamento de Turismo y Comercio) estrenó el pasado 19 de diciembre, un espectacular show de luces, láser y música que tendrá como escenario la bahía de La Concha".

El espectáculo, según informaba la web municipal, contaba con cuatro piezas musicales, una de ellas creada de forma específica para la ocasión, y cada una de las piezas estaba acompañada de un espectáculo de luces diferente. Estuvo en marcha hasta el 31 de diciembre, con cuatro pases diarios diarios entre las 18:30 y las 20:00 horas.

Según declaraciones de la concejala de Impulso Económico, Marisol Garmendia, "queremos que la ilusión de la Navidad siga recorriendo la ciudad y ahora se extienda por el punto más emblemático de la ciudad como es la bahía de la Concha. Es un espectáculo que vincula la playa a la ciudad y a sus gentes. De hecho, los haces de luz que se proyectarán adquieren la forma de una concha que domina la bahía.

Teniendo en cuenta el lugar en el que ha sido instalado y el efecto que los haces de luz ha provocado sobre el conjunto de la bahía, nos gustaría tener más datos sobre el efecto que ha podido provocar una luz tan intensa tanto en las aves del entorno como la posible repercusión en el vecindario de la zona.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da kontuan hartu instalazio horrek inguruko hegaztietan izan dezakeen eragin kaltegarria?

2. Inguruko auzokideen kexarik jaso al duzue laser-argiak eremu osoan duen eraginagatik?

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7a

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia"

Marisol Garmendia andreak eta Haizea Garay andreak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:48an Haizea Garay andrea bileratik irten da eta Marta Huarte andrea sartu da)*

**7.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, sexu-askatasunaren aurkako delituen salaketak areagotzeari buruzkoa.**

Marta Huarte andreak interpelazio hau aurkeztu du:

"Marta Huarte Paño Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Kiroletako zinegotzi ordezkari Martin Ibabe Eceizari, sexu-erasoengatiko salaketak areagotu egin direla eta, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Zoritxarrez, amaitu berri den urte honek datu kezkagarriak utzi dizkigu sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko salaketei dagokienez. Prentsan argitaratu berri denez, 2021. urtean, urtarriletik azarora, 411 emakumek salatu zuten, Euskadin, sexu-askatasunaren aurkako delitu baten biktima izan zirela, hau da, aurreko urteko aldi berean baino % 31,3 gehiagok, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak jasotako datuen arabera. Era berean, txosten horretan nabarmentzen da Gipuzkoan % 49 handitu dela delitu mota horren biktima diren emakumeen kopurua (2020an 106, eta iaz 158).

Datuak etengabe hazten ari dira; izan ere, iaz, emakumeen aurkako indarkeria mota guztiek gora

Por este motivo, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo no se ha tenido en consideración el posible efecto contraproducente de esta instalación en las aves del entorno?

2. ¿Han recibido quejas del vecindario del entorno por el efecto de la luz láser sobre toda la zona?

Donostia, 7 de enero de 2022

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

Intervienen las Sras. Garmendia Beloqui y Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 12:48 h se retira la Sra. Garay Gallastegui y se incorpora la Sra. Huarte Paño)*

**7.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al incremento de denuncias por delitos contra la libertad sexual.**

La Sra. Huarte Paño presenta la siguiente interpelación:

"Marta Huarte, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Concejala delegada de Igualdad, Ane Oyarbide, para su tratamiento en la COMISIÓN DE PERSONAS relativa al incremento de denuncias por agresión sexual.

JUSTIFICACIÓN

Lamentablemente este año que acaba de terminar nos deja datos preocupantes en lo que se refiere a denuncias por delitos contra la libertad sexual. Se ha publicado recientemente en prensa que en el año 2021, un total de 411 mujeres denunciaron de enero a noviembre haber sido víctimas de un delito contra la libertad sexual en Euskadi, lo que supone un 31,3% más que en el mismo periodo del año anterior, según datos recogidos por el Instituto vasco de la Mujer-Emakunde. Así mismo, en el informe destaca el aumento del 49% en las mujeres víctimas de este tipo de delitos en Gipuzkoa (106 en 2020, por 158 el pasado año).

Los datos no paran de crecer ya que durante el pasado año aumentaron en Euskadi todos los

egin zuten Euskadin. Lurraldeka, hazkunderik handiena Gipuzkoan izan zen, bai familia barruko indarkeriari dagokionez, bai bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeen aurka eragindako indarkeriari dagokionez.

tipos de violencia contra las mujeres. Por territorios, el mayor aumento se dio en Gipuzkoa, tanto en lo que respecta a violencia intrafamiliar como la ejercida sobre las mujeres por su pareja o expareja.

Estatuko legeria berrian adierazten da sexu-indarkeriek urratu egiten dutela askatasunerako, osotasun fisiko eta moralerako, berdintasunerako eta pertsonaren duintasunerako oinarrizko eskubidea, eta, feminizidioaren kasuan, baita bizitzeko eskubidea ere. Azken urteotan, mugimendu feministak sustatutako mobilizazio eta ekintza publikoei esker, sexu-indarkeriek ikusgarritasun handiagoa lortu dute gizartean.

En la nueva legislación a nivel estatal se señala que las violencias sexuales vulneran el derecho fundamental a la libertad, a la integridad física y moral, a la igualdad y a la dignidad de la persona, y en el caso del feminicidio, también el derecho a la vida. En los últimos años, gracias a las movilizaciones y acciones públicas promovidas por el movimiento feminista, las violencias sexuales han obtenido una mayor visibilidad social.

Genero-indarkeriaren aurkako legeak zioen bezala, legeria horren arabera ere, sexu-indarkeria egiturazko arazo publikoa da, ez pribatua. Horri ziberjazarpena gehitu behar zaio, sexu-askatasunaren aurkako beste delitu mota bat baita.

Al igual que hizo la ley contra la violencia de género, esta legislación entiende la violencia sexual como un problema estructural y público, no privado, al que habría que sumar el ciberacoso como otro tipo de delito contra la libertad sexual.

EIGE Genero Berdintasunaren Europako Institutuaren arabera, gaur egungo testuinguruan, onlineko genero-indarkeria gero eta arazo handiagoa da; gainera, mundu osoan gertatzen da, eta oso ondorio esanguratsuak ditu. Europako Parlamentuaren 2021eko urtarrilaren 21eko ebazpen baten arabera, Europar Batasunean 15 urtetik gorako hiru emakumetik batek pairatu du indarkeria fisiko edo sexualen bat; bitik batek sexu-jazarpena jasan du, eta hamarretik batek jazarpena Interneten. Nazioarteko Plana izeneko GKEak 2020an egindako azterlan baten arabera, hamar haur eta nerabetatik seik jazarpena jasaten dute sareetan.

Según el Instituto Europeo de la Igualdad de Género/EIGE, en el contexto actual, la violencia de género online es un problema creciente de proporciones mundiales y de consecuencias muy significativas. Una resolución del Parlamento Europeo de fecha 21 de enero de 2021, afirma que una de cada tres mujeres en la Unión Europea mayores de 15 años ha sufrido alguna forma de violencia física o sexual; que una de cada dos ha sufrido acoso sexual y una de cada diez, ha sufrido acoso en internet. Segun un estudio llevado a cabo por la ONG Plan International en 2020, seis de cada diez niñas y adolescentes sufren acoso en las redes.

Gizarte matxista eta patriarkalaren pentsamoldea aldatu behar da, eta hezkuntzan eragiteko neurriak ezarri, belaunaldi berriek rolak eta estereotipoak errepika ez ditzaten. Prebentziorako tresnak eman behar dira, haurtzarotik. Horretarako, zalantzan jarri behar da patriarkatua, balio- eta kultura-sistema gisa, bai eta emakumeei esleitutako bigarren mailako rola ere.

Hay que cambiar la mentalidad de una sociedad machista y patriarcal e implementar medidas que incidan en la educación, dirigidas a que las nuevas generaciones no repitan roles y estereotipos. Dotar de herramientas para la prevención, desde la infancia. Poniendo en cuestión el patriarcado como sistema de valores y cultural, y el rol secundario asignado a las mujeres.

Udalari dagokionez, funtsezkoa da ekimenak bultzatzea eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, ahal den neurrian. Halaber, kontzientziazio-kanpainak egin behar dira, emakumeei eta neskei haien aurka zer indarkeria erabiltzen den, zer lege-eskubide dituzten eta eskuragarri zer laguntza-zerbitzu dauden jakinarazteko.

En lo que respecta al Ayuntamiento es fundamental impulsar iniciativas y colaborar con otras Instituciones en todo lo posible. Tambien es necesario emprender campañas de concienciación en las que se informe a mujeres y niñas de la violencia que se ejerce contra ellas, de sus derechos legales, y de los servicios de ayuda disponibles.

Hori horrela, hau da gure

Teniendo en cuenta lo anterior presentamos la siguiente:

INTERPELAZIOA

INTERPELACIÓN

1. Udal Gobernuak zergatik ez du Donostian sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzko txosten zehatzik egiten?

2. Udal Gobernuak zergatik ez du kontzientziazio-kanpaina bat abian jartzen, emakumeei eta neskei haien aurka zer indarkeria erabiltzen den, zer lege-eskubide dituzten eta eskuragarri zer laguntza-zerbitzu dauden jakinarazteko?

3. Udal Gobernuak ba al du asmorik indarkeria matxistei buruzko prebentzio-tailerretan haurrek eta nerabeek jasaten duten ziberjazarpenari eta ziberindarkeriari buruzko informazioa eta kontzientziazioa sartzeko, haien legezko eskubideak azpimarratuz eta eskuragarri dauden laguntza-zerbitzuen berri emanez?

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7a

Sinatua: Marta Huarte
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia”

Ane Oyarbide andreak eta Marta Huarte andreak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:55ean Zigor Etxeburua jauna bertaratu da)*

**8.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, igande eta jaiegunetan Bretxako saltokiak irekiera dela eta.**

Aitzole Araneta andreak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Aitzole Araneta Zinkunegi Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, honako INTERPELAZIO hau aurkezten dio Marisol Garmendia Garapen Ekonomikoko eta Enpleguko zinegotzi ordezkariari, Pertsonentzako Zerbitzu Batzordean azter dadin, Bretxako saltokiak igande eta jaiegunetan irekitzea dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Gobernu Batzarrak Parte Zaharra turista-olde handiko gune izendatzea onartzen duenean, Bretxako saltokiek ordutegi-askatasuna izango dute, eta, 2022an eta 2023an, igandeetan ere ireki ahal izango dute.

1. ¿Por qué motivo el Gobierno municipal no elabora un informe detallado sobre los delitos contra la libertad sexual en Donostia?

2. ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no pone en marcha una campaña de concienciación en la que se informe a mujeres y niñas de la violencia que se ejerce contra ellas, de sus derechos legales, y de los servicios de ayuda disponibles en el municipio?

3. ¿Tiene intención el Gobierno Municipal de incluir dentro de los talleres de prevención sobre violencias machistas, contenidos referidos a Información y concienciación del ciberacoso y la ciberviolencia que sufren las niñas y las adolescentes, incidiendo en sus derechos legales e informando de los servicios de ayuda disponibles ?

Donostia,a 7 de Enero de 2022

Fdo.: Marta Huarte
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia”

Intervienen las Sras. Oyarbide Ochoa y Huarte Paño, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 12:55 h se incorpora el Sr. Etxeburua Urbizu)*

**8.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la apertura de los comercios de la Bretxa en domingos y festivos.**

La Sra. Araneta Zinkunegi da por leída la siguiente interpelación:

“Aitzole Araneta Zinkunegi, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN dirigida a la Concejala Delegada de Desarrollo Económico y Empleo, Marisol Garmendia, para su tratamiento en la en la Comisión de Servicios a las Personas, relativa a la apertura de los comercios de La Bretxa en domingos y festivos.

JUSTIFICACIÓN

Con la aprobación por parte de la Junta de Gobierno Local de la declaración de la Parte Vieja como zona de gran afluencia turística, los comercios de La Bretxa tendrán libertad de horarios y podrán abrir los domingos en 2022 y 2023.

Orain arte, negozio txikiek ireki zezaketen igandeetan. Baina, neurri berri horrekin, kate multinazional handiek ere izango dute igande eta jaiegunetan irekitzeko aukera. Hala, saltoki txikien baldintzek okerrera egingo dute merkataritza-gune handiekin eta multinazionalekin lehiatzeko. Hori kontuan hartuta, honako interpelazio hau aurkezten dugu:

Hasta ahora, los negocios pequeños podían abrir. Sin embargo, con esta nueva medida, las grandes cadenas multinacionales también tendrán la opción de abrir los domingos y festivos. Por ello esta medida empeora las condiciones de los pequeños comercios a la hora de poder competir con los grandes centros comerciales y las multinacionales. Teniendo en cuenta este hecho presentamos la siguiente:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez du Udal Gobernuak neurririk hartu Parte Zaharreko saltoki txikiek multinazionalekin errazago lehiatu ahal izateko?

2. Zein izan dira Udal Gobernuaren irizpideak kate handiei igande eta jaiegunetan ere irekitzeko aukera emateko?

3. Kontrastatu al du Udal Gobernuak aldaketa hori inguruko merkatarien elkarteekin?

Donostia, 2022ko urtarrilaren 7a

Izpta.: Aitzole Araneta,
Elkarrekin Donostia udal-taldeko bozeramailea"

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué razones el Gobierno Municipal no ha implementado ninguna medida para facilitar a los pequeños comercios de la parte vieja el poder competir con las multinacionales?

2. ¿Cuales han sido los criterios del Gobierno Municipal para decidir permitir a las grandes cadenas abrir también los domingos y festivos?

3. ¿A contrastado el Gobierno Municipal este cambio con las asociaciones de comerciantes de la zona?

Donostia, a 7 de Enero de 2022

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

Marisol Garmendia andreak eta Aitzole Araneta andreak hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen las Sras. Garmendia Beloqui y Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:55ean Zigor Etxeburua bileratik irten da eta 13:00etan sartu da berriro)*

*(A las 12:57 h se retira el Sr. Etxeburua Urbizu y se reincorpora a las 13:00 h)*

**9.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztuta, karbono dioxidoaren neurgailuak eta purifikazio-ekipoak erosi eta erabiltzeari buruz.**

Aitzole Araneta andreak irakurritzat eman du interpelazio hau:

"Aitzole Araneta Zinkunegi Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia alkateari, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

